

Goi

Goierritarra aldizkaria

384. zenbakia 2010eko uztailak 2



**BARANDIARAN
MUSEOA
ATAUNEN**

LANDATURISMOA

BASERRIAREN OSAGARRI




ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



raikore



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez. Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa


- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



R.P.S.:32/04



Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.

Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)

Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661

e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com

web: www.huevospitas.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL



Irati Goikoetxea

Pozik ikuste haut! Beti oporran bueltan elkartu gaittuk txoko hontan ta hara non topau haudan oporrak hasi berritan! Belarri gañetan ile zuri gehixeo, begi zulok ilunxeko... baño zukutu beharrekok ongi zukututa, burun zapie jantzita, prest somatze haut oporretako.

Ikasturtea bukauta re ezin buruhaustek alde batea utzi ta katramila galanta ibili diat azken egunotan burun bueltakabuektaka: Realta ta poesie. Zapla bota zidaan laun batek aurpegia, meezi zola ta ez al nion Realai ezer polittik idatz behar. Asmazak ze ote dan zerbait polit hoi!

Saiau neok, baño ezin! Ez polit ta ez itsusi! Ez zaiak ezer buruatzan; olerki bat Realai? Ni lurtarra in ninditean, gizaki arrunt. Zaurik itten ditiatenen odol gorrie ikusten diat, odol gorrie arrasto zuri tiki batzuek jantzita. Bai, gipuzkoarra neok, ta? Tolosako baarrunak ta lizalge gaztea

Saiau neok, baño ezin! Ez polit ta ez itsusi! Ez zaiak ezer buruatzan; olerki bat Realai?

izuarri gustatzen zaizkiak; horrekin ondo justifikatzen diat gipuzkoar identitatea; ez al zaik iruitzen? Gañeakon, ez neok lekukotasun sustraituk itsututa bizi (ezin esan be utzi ne ingurue izuarri maitte deala), gerezi bila Extremadura juten neok ta txokolate bila Suitza.

Futbola? Hain urrutia jun be aspaldi topau nian ne lehoian orroa Bizkai alden. Javi Martinez-ekin amets itten donai ezin eskau kolore txuri-urdinei maitasun aitortzaik itteko!

Poztu re ez? Bai, motel, poztu, poztu neok, besten zorionak pozten don hoitakoa neok. Realzalek pozik bazerek, ni re bai! Aupa Athletic! (;_P) Datorren urten txurigorri/txuri-urdirin derbin zirrara berreskurauko diau beize! Ez dek gutxi!

Ah! Esan al diat? Ondo pasa oporrak!



Ekaitz Goikoetxea

Ez den giro, ez, zelebraziok tenporadea (garizuma esango liken gue amak) baño geio luzatzen dien Gipuzku santu hontan.

Aantza arten aertutako ama birjiñai lorak eskaintzen hasi ez dittun ba realzale lerdemerkeok. Aantzai lorea, marka den geo; marka bai, marka ta diario da asko. Gehiegi. Nazka-nazka ein naun oaintxe hainbeste zerbeza jarra, trapu zahar ta superlento (gehigarri euskera jatorren). Eskerrak erdinapartu ginenetio Berria ta Diario de Noticias leituz ilustratzen gean.

Gue ligak-e eman dizkin ba eman beharrekok, ligak bai, o kurtso nahi baldin baen. Ikasturtek? Grazie eitten ziane bi hitzok erreparo haundiik pae juntatzen dittuen

Ez den giro, ez, zelebraziok tenporadea (garizuma esango liken gue amak) baño geio luzatzen dien Gipuzku santu hontan.

ikasle ta maisu-maistrak. Ezta ikasi beharreko guztie eskolan ta irailetik ekañea ikasi beharko bagendu-re. Hala zihoakigun, hala zihoakigunez (asi nos va kaleko euskeran).

Nindekarzun aditza oñaldin jartzeko eskau ta nakarzu eskribitzen donai bikain, Leizarragan obraz galdetu ta Euskal Herriko koazulon inguruko testu koherente, kohezionatu, jator ta zuzena papereatzen donai auskalo! Ikasten duena ez, eakusten duena kalifikatzen zienau, eakustea nahi deuna, dakiuna baño gutxio eakusten dieun ikasle gaixoi. Gaztek baleki, zaarrak baleza? Ez den entenditzen erreza.

Ez, gue eskolan ikasturtea ez, kurtsoa den ekañen bukatzen dana; gue eskolan dakiuna ikasten jarraitzen baitiñau uztaille ta abuztue iraileako utzita.

Ah ta lasai eonai, akordauko neon da oporrak gozatzez!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Imajinatu, zergatik ez, hiri bat bezala
ikusi eta kudeatuko bagenu Goierri. Auzo
ezberdin, dinamiko, orijinal eta ederrez
osaturiko eskualde bat. Erakargarria.



Joseba Imaz

Gora Reala! (eta aupa Athletic)

Testu honen tituluak asalatu bazaitu, irakurle, zaude lasai. Ez natorkizu futbolaz hitz egitera. Ez, behintzat, futbolaz bakarrik. Baina ze demonio! Horrekin abiatu naizenez, Realaren balentria goraipatzeko aprobetxatuko dut okasioa. Meritua baitu, etxeko jokalariekin bizkar-hezurtutako talde bat Primerara itzultzeak. Eta hainbeste jarraitzaile txuri-urdin, sutsu nahiz epel, pozez zorutzen jartzea pozgarria da, oso. Garai triste haue-tan batez ere.

Noan harira. Futbola –eta bizitza– fobia eta filietan, lagun eta etsaieran, oinarritzen dutenek ez dute ulertuko zergatik diodan, baita ere, “aupua Athletic”. Realaren igoerak, baina, aipatzen noan gogoeta berritu du nigan. Ez Lasartek gidatutako mutilek egindako lorpenak, baizik eta zenbait realzalerengan ikustako anti izaerak. Horrek bultzatu nau honako hau idaztera (Athletic zale askok eta askok Realarekiko duten ezin ikusia ahaztu gabe).

Taberna giroan eta lagun artean elkarri adarra jotzeko aitzakia egokia izaten dira horrelakoak. Lehoien sexualitatea zalan-tzan jartzea, nahiz txuri-urdinen odol falta salatzea, klasikoak bihurtu dira bromazaleen artean. Jolas dibertigarria izan daiteke, bai horixe! Baina sentimendu hori haratago eramanez gero, beste gauza batean bihurtzen delakoan nago: inbidia eta albo-koaren gaitzarekin poztea. Gipuzkoar eta bizkaitarren arteko liskarrak, horren erakusle. Etengabe ikusten ditugu gisa horretako tentsioak. Begira bestela, alderdi politikoetara, aurrezki kutxen bat egitera, kultura ekipamenduetara...

Susmoa badut, euskal herritarren arteko elkarlana oztopatu nahi dutenen mesedetan izaten direla halako eztabaidak.

Horregatik dira biziki interesgarriak Seguran antolatu ohi den Iparra-Hegoa jaialdia, Bidasoaz gaindiko lurraldeetako erre-alitatea gerturatzen dituen, edo joan den urtean Sakana eta Goierriko udalerrien artean antolatutako topaketa (aurten ere egingo al da!). Aspaldian hautsak jandako erlazio eta konplizitateak berreskuratzeko balio dute ekimen horiek. Izan ere, balio eta arazo sozial, kultural, ekonomiko eta linguistikoak –hala nola– elkarbanatzen dituztenen arteko harremanetan sakontzea baino gauza naturalagorik ez da.

Beldur naiz, dena den, gerturatze hori ez ote den beharrez-koa maila baxuagoetan ere. Beasain eta Ordiziaren arteko lehia har dezakegu adibidetzat. Herrien arteko ika-mika alferrikakoez ari naiz, bai. Susmoa daukat (berriz ere susmoa), norbere herri, auzo edo etxearen defentsan itsutzen garela askotan, elkarri bizkarra emanda.

Norbere interesak defendatzea ongi dago eta beharrezkoa da. Baina noizbehinka elkarri begiratu eta albokoei gerturatzea ez da inorren kalterako. Imajinatu, zergatik ez, hiri bat bezala ikusi eta kudeatuko bagenu Goierri. Auzo ezberdin, dinamiko, orijinal eta ederrez osaturiko eskualde bat. Erakargarria. Baina ez hori bakarrik. Gipuzkoako hiri nagusienetako bat bilakatuko litzateke, horrek dakarren guztiaekin.

Goieki eta Goitur bezalako erakundeak hortan dihardute azken urteotan. Modu arrakastatsuan, gainera. Imajinatu elkar-lan hori bera kulturaren arlora pasako bagenu. Edo arlo soziale-ra. Edo jarri nahi dituzun adibide guztiak.

Beasaindarra izanda, “Gora Beasain!” esaten jarraituko nuke. Ozen gainera. Baina ordiziarren golak ere ospatuko nituz-ke. Eta Idiazabal eta Segurarenak. Eta itsasondoarrenak. Zergatik ez?

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



kutxa

Asma dezagun geroa

REPSOL



KONTRATATU REPSOL-EN GASA ETA BETE ZAITEZ ENERGIAZ

Moderno, eroso, merkea eta etengabeko eta mugagabeko hornikuntza duena; gozatu berogailurako, ur berorako eta sukalderako nahi duzun guztietan etxean gasa edukitzearen abantailez. Eta bete zaitez energiaren Repsol-en gasarekin.



REPSOLGAS

Kontratatu orain **Repsol Seguran**
eta sar zaitez **honelako 10 sariren** zozketan:

ETXERAKO GAS ETA BEROGAILU
INSTALAZIOA
DOAN

Eta orain ez duzu alta eskubiderik ordaintzen
¡AURREZTU 212€ -RAINO!

Deitu eta informa zaitez hemen
901 100 125

Alta eskubideak eta, behar izanez gero, hartunea barne ditu. Eskubide horien balioa eta beharra aldatu egingo da tokian-tokian indarrean dagoen legediaren arabera. Eskaintza geografikoki mugatuta dago sare lursailaren parean duten etxebizitzetara eta instalazio berrien aldetara. Aurrekontua 2010eko ekainaren 21etik irailaren 30era bitartean eskatu eta gasaren alta 2010eko azaroaren 30a baino lehen dutenentzat balio du sustapenak. 7,20 €-ko fiantza bezeroak ordaindu behar du. Repsol-ek bezero saridun bakoitzak bere gas eta berogailu instalazioagatik ordaindu duen diru kopuru osoa ordainduko dio bezeroari, instalazioa Repsol-en lankide baimendun batek egin badu. Notarioareneko oinarriak, eskuragai Repsol Butano-n (Jose Abascal kalea 4, 6. oina. 28003 Madril).

Denetik (XXXVIII)

Maizpide euskaltegia

“Juani, etorri leiho honetara! Hemendik Txindoki ikus dezakezu!”

‘Ahalera’ deitzen diogun aditza (*ikus dezakezu* hori goiko adibidean) aukeran gehiegitxo erabiltzen dugu! Hamaika aldiz idatzi dugu txoko honetan, ia gehienetan, gaztelaniaren eraginez (Iparraldean, beharbada, frantsesa izango dugu ‘erantzulea’) sortzen ditugula euskaraz hainbat egitura trakets... eta gaurkoa, lagunok, ez da salbuespena! Txukunak diren ondorengo adibideei erreparatzen badiezue, poza, tristura, harridura... eragiten diguten uneak ‘zein modu arruntan’ adieraztea daukagun kontratuko zarete.

✓ *Juani, etorri leiho honetara! Hemendik Txindoki ikusiko duzu!* (egokia)

✓ *Juani, etorri leiho honetara! Hemendik Txindoki ikusten da!* (egokia)

✗ *Juani, etorri leiho honetara! Hemendik Txindoki ikus dezakezu.* (desegokia)

✗ *Juani, etorri leiho honetara! Hemendik Txindoki ikus daiteke.* (desegokia)

Zalantza edo duda adierazteko ere erabili izan dugu, baina horretarako ere badugu aukera hoberik!

✓ *Zapaterok berriki bartu duen erabakia kontuan hartuta, baliteke Euskal Herriko langile askok “Hi, txikito, urrunegi joan baiz!” esatea.* (egokia)

✓ *Zapaterok berriki bartu duen erabakia kontuan hartuta, litekeena da Euskal Herriko langile askok “Hi, txikito, urrunegi joan baiz!” esatea.* (egokia)

✗ *Zapaterok berriki bartu duen erabakia kontuan hartuta, Euskal Herriko langile askok “Hi, txikito, urrunegi joan baiz!” esan diezaioke.* (desegokia)

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Eutsi goiari, Joxantonio! Ahal baduk, egin ezak korrika ahuntzak bezala!
2. Joxantoniok ba al daki harrotuta ibiltzeak ez duela ondorio onik izaten?
3. Klaudiak Joxantonioren elastikora begiratzuz gero, ez du izerdia besterik ikusten!

OHARRA: denak zuzenak, arranopola!

Noiz ‘al’ eta noiz ‘ahal’?

Oraindik bada kalean nahasten dituenik eta, tira, hona hemen azalpentxoak:

Al: Gipuzkeraz galderak egiteko betitik erabili izan dugun ‘morroia’. Aditzaren aurrean joaten da eta erantzuna bai ala ez modukoa izaten du!

✓ *Andereño, joan al gaitzeko komunera?* (egokia)

✗ *Andereño, joan abal gaitzeko komunera?* (desegokia)

Ahal: Zer edo zer egiteko trabarik edo ezintasunik ez dugula adierazteko:

✓ *Abal badun, joan badi okindegira eta ekar iezazkidan bi ‘txapata’.* (egokia)

✗ *Al badun, joan badi okindegira eta ekar iezazkidan bi ‘txapata’.* (desegokia)



Joxantonio ‘V’ telesailetik ihes egindako muskerra ote dugu, bada?

disek

ibaiondo
altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
 tel.: 943 16 40 40
 faxa: 943 16 47 47
 mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

● Pintxo hotz eta beroak
 ● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

Ibaialde Zubin errekan

Landarlanek, aurten ere Ibaialde programan parte hartu du, Zubin errekan. Zubin erreka Itsasondo eta Legorretako mugan aurkitzen da, Berostegi auzoan eta Oria ibaiaren isurkidea da. Murumendi azpialdeko haran estua zeharkatzen du eta bere bi ertzetan hainbat base-ri daude. Berostegi auzotik (Legorreta) sartu eta 2 Km.ko bidea egin ondoren, bide gurutze batera iristen da eta gune horretan egin dugu Ibaialdeko azterketa. Zubi ondotik 5 m. tara itxitako zabortegi bat dago eta errepide ondoan eskubitara bide berri bat, AHTren lanetarako.



Efimera bat Zubin errekan.

Gizakiaren eragina

Inguruko erabilera nagusia basogintza da, pinu ugari dagoelarik. Bide-azpiegituren atalean zubia, errepideak, itxitako zabortegia eta AHTko laneko bidea nabarmentzen dira. Hondakinak aurkitu ditugu, hainbat zabor poltsa uretan zein ertzetan eta plastikozko botilak ere.

Biodibertsitatea

Ibaiertzeko berezko landaredia aurkitzen dugu ertzetan: haltza eta lizarra. Bestelako hostozabalak ere bai, haritza, hurritza, astigarra, urkia eta baita azari buztana, garoa, intsusa, iratzeak eta goroldio ugari.

Arrainak, anfibioak, narrastiak ez ditugu ikusi eta ugaztunak ere ez, baina seguru-erik egongo direla. Hegaztien artean berriz zozoa, txantxangorria eta txepetxa begiztatu ditugu. Intsektu dexente behatu ditugu, horien artean, opilion eta efimera. Uretan harrien artean ornogabe bentoniko mota ezberdin bizi dira eta hauek bioindikatzaileak dira, alegia uraren kalitatearen berri ematen digute. Aurkitu ditugun

ornogabeak planaria, efemeropteroa eta ur arkakosoa izan dira.

Ondorioak

Analisi kualitatiboa ona izan da, kiratsik, hildako arrainik, aparrik, oliorik eta eutrofizazio-rik ez baitugu aurkitu. Analisi fisiko-kimikoak ere onak dira.

Ibaiertzeko bertako landaredia egokia du, baina aldamenen bestelako landaredia ere bada, platanondoak eta akazia, azken hau landare inbaditzailea delarik. Pinu landaketak berriz basogintzan tradizionalki erabilitako monokultiboak dira eta ingurumen ikuspuntutik biodibertsitatea gutxitzen dute.

Fauna aldetik inguru horretako hegazti arruntak ikusi ditugu. Eta aipatutako ornogabeak egotea, urak kalitatea ona duela esan nahi du.

Plastikozko boltsek ingurumena kutsatu eta inpaktu bisuala dute eta desegokiak dira. Kontzientziatu behar dugu gure hondakinak mendian edo errekan inoiz ez uzten, jaso egin behar ditugu, zabor ontzietara eramanez.

Ibai inguruko bi jarduerak inpaktua eragiten dute errekan, batetik itxitako zabortegiak eta bestetik AHTko lanek lurzorua eraldaketa fisikoa eragiten dute eta zuhaitz mozketek inpaktu bisuala eta higadura sortzen dute.

Koldo Ormazabal

Plastikozko boltsek ingurumena kutsatu eta

inpaktu bisuala dute eta desegokiak dira.

Kontzientziatu behar dugu gure hondakinak

mendian edo errekan inoiz ez uzten, jaso egin

behar ditugu, zabor ontzietara eramanez.

JAKIN BEHARREKOAK

Bioaniztasunaren egoera. Mehatxupean dauden espezieak: ugaztunak % 21, urlehortarrak % 30, hegaztiak % 12, narastiak % 28, ornogabeak % 35, ur gezetako arrainak % 37 eta landareen % 70. Euskal Herrian hamalau berezko animalia arraza daude (pottoka, betizu,...) eta hauetatik zazpi desagertzeko arriskuan daude. Bost egoera larrian eta bi, ez daude arriskuan.

Zostera noltii lehenertzeko EAEko leku egokienak zein diren aztertzen ari dira AZTI-Tecnalia. Butroe, Oria eta Urola ibaien estuarioak dira espezie hau hartzeko arrakasta-berme handiena duten tokiak. Euskal Herrian itsasoko belardiak eratzen dituen landare bakarra da. EAEn, Oka, Lea eta Bidasoan bakarrik aurki dezakegu. Fanerogama hauek funtzio garrantzitsua dute urpeko inguruetan, sedimentuak egonkortu eta lehen mailako ekoizleak dira. Belardiak, ez baitira algak, itsas ekosistema emankor-rrak dira eta babesleku, janari iturri eta umatzegu-neak dira.

INTERNET

<http://www.rednatura2000.info/>. Espainiako Natura 2000 Sareko web orria.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu:
943161244 landarlan@yahoo.es



Mundutik Maizpidera euskara ikastera

maizpide Lazkao

Izen ematea:
Maiatzaren 5etik aurrera
www.maizpide.com
943 88 92 31

90 ikastordu / 12 eskola-egun
1-Uztailaren 5etik 16ra*
uztaila →
2-Uztailaren 19tik 30era*
90 ikastordu / 12 eskola-egun
*asteburua barne

118 ikastordu / 20 eskola-egun
Abuztuaren 2tik 27ra
abuztua →

130 ikastordu / 22 eskola-egun
Irailaren 1etik 30era
iraila →

2010eko udako euskal ikastaroak Lazkaon

acmultimedia

Lazkaoko Maizpide euskaltegian mundu osoko hainbat jende euskaldundu da azken urteetan.

Ikasle gehienak Hego Euskal Herrikoak izaten badira ere, hainbat etorri izan da mundu zabaletik. Ekainean Maizpiden zeuden hainbat lekuetako ikasleen testigantza da honako hau. Oraingo honetan berezitasun bat ere bada, Iparraldeko ikasleen kopurua, banaka batzuk etorri izan badira ere, orain 5 daude Maizpiden. Lehenengo pertsonan azaldu dute guztiek euskararekin izan duten harremana.

Julio Lopez (Salamanca)

21 urte nituenean Madrilera joan nintzen. 11 urte egin nituen. Ikastera eta entrenatzera joan nintzen. Orain dela bi urte lana aurkitu nuen Iruñean eta hona etorri nintzen bizitzera. Nire emaztea hemengoa da, usurbildarra. Golf zelai batean lan egin nuen. Emaztea, bere gurasoak... euskaldunak direnez, pasa den urtean, udan, Iruñeako lana utzita gero, probatzera etorri nintzen Maizpidera. Uztailan etorri nintzen. Gustura egon nintzen eta gero irailetik ekainera, dena jarraian egin dut.

Zaila da bai euskara. Gogor-gogor lan egin dugu, batez ere negu partean. Gero errazagoa izan da, baina hasieran, nire partetik behintzat, gogorra izan zen. Lehenengo hiru hilabeteak oso gogorrak izan ziren. Ni ezer jakin gabe etorri nintzen.

Ez baduzu hitzik egiten, pixka bat galduta zaude. Harremanak egitea zaila da, ezin duzulako hitz egin eta ezin duzulako nahi duzuna esan. Ni gogoratzen naiz, hasieran, esnatu eta gosaltzera beldurtuta jaisten nintzela. Banekien gosaltzeko orduan hitz egin beharko nuela. Logelatik ateratzen nintzen, klasera joateko bakarrik. Mutu, hitz egin gabe. Eta berriro logelara. Baina orain gustura nago. Atsedean bat hartuko dut, baina jarraituko dut.

Marta Garcia (Madril)

Madrildarra naiz, Fuenlabradakoa. Orain dela ia 7 urte Arabara etorri nintzen eta bertan bizi naiz, Izarran. Euskara ikasten Gasteizen hasi nintzen. Orain dela bi urte erabiki nuen serioago hartzea hizkuntza. Gustatzen zait. Lagunak ere euskaldunak direnez,

animatu egin nintzen.

Oso gustura ari naiz. Pena da denbora gehiago ez izatea. Beti presaka gabiltza, EGA atera nahian... ez duzu agian bidea gozatzen. Gero eta gehiago gustatzen zait. Hasieran oso zaila iruditzen zitzaidan, baina gero eta gehiago gustatzen zait. Hasieran ezinezkoa zela pentsatzen nuen.

Bertako batzuek ez dakite euskaraz eta harritzen nau, behintzat kuriositate hori ez edukitzea. Azkenean, kultura da, eta aberastasuna.

Cata Pierozek (Varsovia, Polonia)


Nire gurasoak poloniarrek dira. Haiek bizitzan zehar asko bidaiatu zuten. Mexikon jaio nintzen, gero Poloniara itzuli nintzen. 6 urte nituenean hona etorri ginen eta 15 urtera arte hemen bizi izan nintzen. Berriz Poloniara itzuli ginen eta duela hiru urte erabaki nuen nire kabuz, berriro itzultzea. Lan egiteari utzi nion eta hona etorri nintzen.

Aurreko aldian egon nintzenean euskara pixka bat ikasi nuen. Gutxi. Oporretan Zornotzan, udako hiru ikastaro egin nituen. Gustatzen zait eta gustura nago. Nire izaera da: gustatzen zait dena ulertzea.

Agata Gutierrez (Madril)

Madrildarra naiz. Orain dela lau urte etorri nintzen. Mutil bat ezagutu, lana utzi eta Euskal Herrira etorri nintzen. Euskaltegian hasi nintzen euskara ikasten. Lanagatik, niretzat euskara beharrezkoa da. PL2 atera behar dut.

Gogorra da, baina oso gustura dago. Ez nuen hitzik ezagutzen euskaltegian hasi nintzenean. Irunen bizi naiz.



Julio Lopez



Marta Garcia



Cata Pierozek



Agata Gutierrez

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta
Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak



Monica Serentill



Tomas Pierre



Ramuntxo San Sebastian

Monica Serentill (Lleida)

Gasteiza etorri nintzen Bartzelonatik, maitasunagatik, noski. Orain dela 16 urte etorri nintzen eta orain nire familia hemen dago. Bi seme dauzkatz eta oso ondo bizi naiz Gasteizen. Miñanon enpresa bat sortu nuen, diseinu grafikoaren arloan baina nire ogibidea beti irakaskuntzari lotuta egon da. Orain, irakaslea naiz, arte edo goi mailako diseinu eskolan lan egiten dut. Nire eskolak ez dauka perfilik, eta eskolak gaztelaniaz ematen ditugu baina perfila behar dut eta horregatik ari naiz euskara ikasten.

Euskara hizkuntza asko gustatzen zait, nahiz eta oso zaila den. Oso gogorra da ikastea.

Nik semeekin katalanez hitz egiten du. Gure sukaldeko mahaian, hiru hizkuntza egoten dira: euskara, gaztelania eta katalana.

Euskara ikasterakoan bitxikeria asko sortzen dira, eta bat kontatuko dut: ez

nekien zer esan nahi zuen 'adibidez' hitzak. Hainbeste aldiz azaltzen zen... nik uste nuen gizonen bat zela. Aristoteles bezala. Nekatuta nengoen eta galdetu egin nion irakasleari: nor da Adibidez jauna?

Tomas Pierre (Paris)

Parisen sortu nintzen. Euskararen harremana, nire amaxirekin izan nuen. Hendaiakoa zen nire amaxi. 16 urte bete nituenean, pentsatu nuen euskara ikasiko nuela. Familian beti asko abesten genuen eta ez nuen ezer ere ulertzen. Poliki-poliki ikasi nuen. AEK-ko Foru barnelegian aritu nintzen lehenengo.

20 urte nituenean Parisko Euskal Etxeko abesbatzan abestu nuen hiru urtean. Momentu berean, euskara ikasten hasi nintzen. Nire aitak hitz asko zekizkien euskaraz. Hitz batzuk euskaraz hitz egiten zituen gurekin, baina geroago konturatu nintzen, dena nahastu eta beste

hizkuntza bat egiten zuela.

Orain, Euskal Ikasketan lan egiten dut, Eusko Ikaskuntzarekin eta Baionako Euskal Ikasketen Zentroarekin. Beraz, beharrezkoa da euskaraz ongi hitz egitea.

Ramuntxo San Sebastian (Zokoa, Lapurdi)

Zokoakoa naiz. Han sortu eta han bizi naiz. Pixka-pixka bat nekien euskaraz. Nire barnean sentitzen nuen eskas handi bat eta horretarako nire euskara hobetu nahi nuen. Horregatik etorri naiz Maizpidera. Eta ikusi nahi nuen nola pasatzen den hemen.

Amatxi bakarrik mintzatzeko zitzaidan euskaraz. Nire aitak eta amak bazekiten euskaraz. Baina amarekin, anai-arrebekin eta nirekin inoiz ere ez zuen egiten. Eskolan ere debekatua zen. Aita lagunekin euskaraz mintzatzeko zenean, ahoa irekia egoten nintzen. Handitu nintzenean, eskas hori sentitzen nuen.

Boisetik Lazkaora

Ekainaren 1ean etorri ziren. Hilabete egongo dira Maizpiden. Denbora gehiago egingo lukete, baina orain ez dute posible. Aurrerago itzuliko direla diote. Asteleheneetik ostiralera Maizpide egoten dira eta asteburuetan mojen komentuan hartzen dute ostatu eta bitartean Euskal Herria ezagutzen ari dira.

Cody Beaudreau (Boise-Idaho-AEB)

Boiseko euskal kulturagatik euskara interesatzen zait. Hizkuntza, kultura, jendea, janaria, parranda... gustatzen zaizkit. Horregatik euskara ikasten hasi nintzen, duela urte eta erdi. Maizpidera etorri naiz orain. Gustura ari gara. Euskal Herria oso polita da baina xirimiria, euria... beti. Boisen, bero handia egiten du. 40 °. Nahiago dut hemengo xirimiria. Oso ezberdina da Boiseko euskal kultura eta hemengoa, hura Basque American da.



Megan Yrabazabal (Boise-Idaho-AEB)

Nire birraitona Muxikakoa zen. Etxean ez dut euskararik entzun. Duela bi urte hasi nintzen euskara ikasten, unibertsitatean. Unibertsitatean biologia ikasten ari naiz. Gero, albañolaritza eskolara joango naiz. Eta gero, Meganek eta biok, Euskal Herrian baserri bat erosiko dugu. Gure ametsa hori da.

Megan Otteman (Boise-Idaho-AEB)

Nire amama euskalduna zen eta euskaraz hitz egiten zuen. Baina nire amak ez zuen ikasi. Horregatik, nik nahi dut euskaraz ikasi eta euskara ikasten Idahoko unibertsitatean hasi nintzen. Nire klase gustukoena da. Eta orain hemen nago, oso pozik. Gustura. Askok gustatu zait hemengo kultura. Gernikakoa zen nire amama. Bere gurasoak Euskal Herritik Amerikara joan ziren. Nire amamak zerutik ikusten nau eta oso pozik egongo da.



Zokoan, apez famatua egon zen, Pierres Lartzabal. Harekin hitz egiten nuen bere etxean, gai denetaz, frantsesez. Irudi zait, txerto bat emango zidala. Gaur egun bertze apez bat bada, ospetsua ere, Mikel Epaltza, Frantziako apez guztien nagusia da eta berarekin hitz egiten dut batzuetan.

Bertzetik, koral batean abesten dut eta ez dut kantatu nahi jakin gabe zer kantatzen dudana. Gure koralean 40 lagun gara, badira 4 edo 5 euskaraz badakitenak. Hori ez dut domaia atxematen eta horretarako ere hobetu nahi dut nire mintzaira.

Euskalkia ere aldatu egiten da eta gustatzen zait beste hitz batzuk ezagutzea. Zaila da ikasteko baina gustatzen zait. Telebista pizten dudanean, hobeki ulertzen dut.

Oihana Salaberri (Getari, Lapurdi)

Txikia nintzelarik, eskolan ikasi nuen euskaraz, Ikasbi sisteman. Unibertsitatean sartu ondoren, euskararik ez da ikasten. Bordelera joan nintzen unibertsitatera. Euskara ez nuen mintzatzen eta pixkanaka-pixkanaka ahazten ari zitzaidan. Eta ez nuen galtzerik nahi. Horregatik etorri nintzen Maizpidera. Maila oso

azkar galtzen da. Euskara banekien, ez oso ondo baina banekien. Ez baduzu hitz egiten, dena ahazten da.

Ikasbi, eskola publiko elebiduna da. Egunaren erdia euskaraz eta beste erdia frantsesez. Baina gero eta maila altuagoan, gero eta gutxiago ikasten da euskara. Lizeoan, historia eta euskal hizkuntza bakarrik ematen da euskaraz, eta gure artean ez dugu inoiz euskaraz hitz egiten. Nahiz eta jakin, beti frantsesez egiten dugu.

Laurence Elarre (Urruña, Lapurdi)

Baionan sortua naiz. Txikitan, gizon bat etortzen zen gure eskolara, euskaraz abestera. Euskara gustatzen zitzaidan baina nire ama Parisen sortu

zen eta nire aita ez zen euskalduna. Orain dela 6 urte Parisera joan nintzen ikasi eta lan egiteko. Euskal Herria falta zitzaidan, asko, eta orduan Pariseko Euskal Etxera joaten nintzen, eta euskaraz ikasten hasi nintzen, astean bi ordu. Iparraldera itzuli nintzen, bizitzera, baina oso zaila zen euskara ikastea, ordu gutxi izaten baitziren astean. Ez zen nahikoa. Orduan, erabaki nuen Maizpidera etortzea. Pozik nago hemen.

Janvier Lissardy (Donibane Lohizune)

Urruñan bizi naiz. Aspalditik nahi nuen euskaraz ikasi. Zaila da niretzat, baina denborarekin uste dut ikasiko dudala.



Oihana Salaberri




Laurence Elarre



Janvier Lissardy

**Bordelera joan nintzen
unibertsitatera.
Euskara ez nuen mintzatzen eta
pixkanaka pixkanaka
ahazten ari zitzaidan.
Eta ez nuen galtzerik nahi.
OIHANA SALABERRI**



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**



biok
zerbitzuak
Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA
Santa Barbara Bidea z/g. URRETU. Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
www.iparragirre.net - jniparragirre@edunet.es


ERIZAIN LAGUNTZAILEA
Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D ereduak.

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ✗ Zaharren egoitzetan
- ✗ Egunko zentruetan
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea
- ✗ Kontsulta pribatueta
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ✗ Gaixoen zaintza



MATRIKULA EGITEKO EPEA:
Uztailaren 7tik 13ra
(biak barne)



Lorategien diseinuan eta lore jangarrietan oinarritzen da Haizea Zurutuzaren proiektua

Hazia: natura etxeetara gerturatzea helburu

Goierriko Garapen Agentziak, Goiekik, antolatzen duen Enpresa ekimen berriko proiektu onenaren saillean, bi proiektu saritu dituzte aurten: Hazia eta Errekarte. 9.000 euroko saria, beraz, bi proiekturen artean banatu dute.

Haizea Zurutza beasaindarra da Hazia proiektuaren sortzailea. 23 urte betetzear dago. Derion, Nekazal eskolan ikasia da eta betidanik gustatu izan zaizkion lore eta landareei enpresa forma eman eta etekina atera nahi die. Lorategien diseinuan eta lore jangarrietan oinarritzen da Hazia proiektua. Oraindik ere xehetasun batzuk falta bazaizkio ere, etenik gabe, poliki-poliki, ideia martxan jartzekotan da beasaindarra.

Helburu nagusia, natura geure etxeetara erakartzea da. Beasaindarrak aitortu duenez, bultzada eman dio sariak.

Lore jangarriak

Bi atal nagusi ditu Hazia proiektuak: lore jangarriak eta lorategien diseinua. Gehixeago zehaztu du Zurutuzak: “Lore jangarriak baino gehiago, landareak berak dauzkan erabilera ezberdinak gizareratu nahi ditut. Adibidez, sendabelarrak. Nire proiektuaren helburua izango litzateke, jendea kontzientziaztea, landare batek erabilera ezberdinak izan ditzakeela. Adibidez, etxean balkoietan dauzkagun hainbat lora, jateko erabil daitezke. Begoniak, geranioak... adibidez”.

Goi mailako euskal sukaldari batzuk hasiak dira beraien errezetetan lore ezberdinak sartzen. Andoni Luis Aduriz, Mugaritzeko sukaldaria adibidez. “Kontzientzia gutxi dago. Sukaldariren batzuk, Aduriz adibidez, ari da baina orain arte ez da gehiegi ezagutu. Sukaldariak egiten ari diren lana lagungarria da”.

Etxeetako balkoietan tomateak eta letxugak landatzen ere hasi da jendea. Gero eta gehiago dira. “Natura gure etxeetara gerturatu behar dugu. Gure osasun ohituretara ere bai. Osasun aldetik ondo egoteko aukera bat da landareak erabiltzea errezeta naturalekin. Betidanik egon den kultura berriro ere geure-

ganatu nahi dut. Baserri inguruetan egon den kultura kaleratu egin behar da, jendeak ezagutzeko eta natura bera baloratzeko. Pentsamenduak adibidez. Balkoietako erabiltzen da baina naturalki erabili behar dira. Produktu kimikorik ez badugu erabiltzen, jangarriak dira”, dio Haizea Zurutuzak.

Aipatu duen bezala, produktu kimikorik gabekoak. “Bestela gure osasunerako kaltegarriak izan baitaitezke”, gaineratu du beasaindarrak.

Lore jangarrien zerrenda luzea omen da. “Geranioetan badaude batzuk jan daitezkeenak, begonietan ere bai... Urtaro ezberdinetan ezagutzen ditugun loreetan aukera zabala dago”.

Loreak gehienetan entsaladatan jaten badira ere, horretan ere aukera ezberdina omen dago. "Adibidez, kalabazaren lorea modu ezberdinetara jan daiteke. Bakoitzak zapore ezberdin bat eman du. Batzuk biziagok dira, besteak motelagoak... baina bakoitzak bere puntua ematen dio".

Lorategien diseinua

Lorategien diseinuaz ere arduratu nahi du Haizea Zurutuzak. Leku eta txoko ezberdinentzat, aukera ezberdinak eskaini nahi ditu. "Ez dago zertan leku handia eduki behar. Balkoi edo terraza batean, baldosa eduki beharrean, harriekin, ur gutxi behar duten landareak jarri daitezke, eta natura gerturatu daiteke gure etxera. Ez dago zertan leku handi bat edo lorategia eduki beharrik. Gogoia eduki behar da, natura geureganatzeko", azpimarratu du. Beraz, lorategien diseinurako aholkularitza ere emango luke, "nire lana, natura barneratzea, eta ohitura berriekin landaketa berriak egitea da".

Herrietako lorategiak zein itxuratan dauden galdetu diogu. Beasaindarra izaki, Beasaingo lorategiak gainbegiratu eta nota on samarra jarri die. Nahiko txukun omen ditugu biribilguneak eta lorategiak. "Beti hobetu litezke baina nahiko ondo daude. Zenbaitetan, aukeran, zuhaitz gutxiegi" daudela iritzi dio. "Gainerakoan, nahiko ondo. Hori bai, gu baino aurreratu-



Goiekiko enpresa ekimen berrien XIII. sariketan, enpresa ekimen berriko proiektu onenaren akzesita jasotzen: Errekarte projektuko Martin Lizarazu eta Haizea Zurutuza, Jose Migel Santamaria eta Jose Luis Larrearen eskutik.

Idiazabalgo Errekarte: euskal kulturaren museoa

Idiazabalgo Errekarte proiektua ere saritu du Goiekik. "Euskal kultura bultzatu eta ezagutarako duen tokia edo gunea izango da. Proiektua XVI. mendeko eraikuntza batean kokatuko da, azalera handiko lorategi bat dauka eta bertan kontzertuak eskainiko dira bete ekintza batzuen artean. Proiektuaren helburua Goierri eta hemendik kanpora turistikoki erreferentzi bat izatea da non bertan euskal kulturaren jatorria ezagutzeko aukera egon dadin, hau da, euskal kulturaren museo baten antzera izatea".

goak dauden Frantzia eta Ingalaterraren aldean, atzera samar oraindik".

Kokaleku egokiaren bila

Haizea Zurutuzak, oraindik ez du bere proiektua gauzatzeko

lekurik aurkitu, baina Goiekiren sariak indarra eman dienez, hortxe dabil, lekuren baten bila. "Naturarekin harremanetan dagoen leku bat aurkitu nahi du. Ez dadila leku itxia izan", zehaztu du.

"Aukera izanez gero, prozesu guztia egin nahiko luke. Hazia da nire proiektuaren izena. Alegia, hazitik hasi eta kontsumitzerainoko prozesua lortu nahiko nuke", gaineratu du Zurutuzak.

zuhaitzki

Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa **20491 LEABURU**

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



“Helduak garenez, badakigu zer eta nola egin”

Nekaturreko
lehendakaria da
Agustin
Linazasoro

Nekazalturismoen eta landaetxeen elkarte da Nekatur eta 20 urte bete ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko ia 400 landaetxe ordezkatzen ditu. Agustin Linazasoro ordiziarra da Nekaturen lehendakaria eta 20 urte hauetako errepasoa egitearekin batera, erronka berriak ere aipatu dizkigu.

Paper artean harrapatu dugu Agustin Linazasoro. Berak kontatu digunez, hiru hilabetea, hainbat gazterekin Animaliez eta Naturaz Lagundutako Terapia egin dute Pagorriagan. Esku-hartzea egin, eta datuak bildu ondoren, ordenadore aurreko lana gelditzen zaie. Argazki ugari atera dituzte eta horietxe omen dira informeri onenak. Lehenengo pausoa egin dute baina Linazasorok adierazi digunez, "demostratu behar da, abal moduan, terapia horrek funtzionatzen duela".

Beste lan batzuetan ere hasi zarete beraz.

Nekazal eremua berbaloratu nahi da, nekazalturismoa aprobe-txatu egitura bezala, eta espezializazioa bilatu. Nekazalturismoak erraztasuna du, bere etxea eta bere ingurua eskaintzeko. Bi modutan erabil daiteke: interbentzio terapeutiko bezala, edo osasun-turismo bezala. Jendeak jakingo du, halako eta halako nekazalturismoa egokituta dagoela. Lekua bera, laguntzeko dago. Alegia, bezero mota desberdinak erakartzeko prestatu behar du nekazalturismoak, asteburuez, zubiez edo oporrez gain.

Beste aurrerapauso bat emateko garaia iritsi zaio Nekaturri?

Turismo arruntan, gure helburua, atzerriko jendea da. Nazioartekoa. Etorriz gero, denboraldi luzeagoak egiten dituzte, ingurunea esploratzen dute... iturri hori lantzeko daukagu.

Beste iturria, industriarekin lotuta dago: industria asko daukagu, mugimendu handia dago, eta betiko hotelak eskaini ordez, nekazalturismoa eskaintzea; edo erabil ditzatela nekazalturismoak, opari moduan. Bono opari deitutakoa. Beste jende iturri bat da. Zenbait nekazalturismo eta landetxeak, inguruaren arabera, industriarekin funtzionatzen dute.

Behar sozialak edo psikologikoak dituztenak ere beste iturri bat dira. Hirugarren adinekoak ere hor ditugu. Hauek ahalmen ekonomikoa badute, denbora ere bai, askoren jatorria baserria da eta nolabaiteko herrimina hori dute, beraz, zubia eman behar zaie, berriz ere bizi dezaten. Horrela, astebukaeran lan egiteaz gain, mesede bat egiten zaio gizarteari.

Beste turismo mota bat, nostalgikoa deitzen zaiona dago. Kanpoan bizi diren euskaldunak, Amerika hegoan eta iparraldean bizi direnak, eta hauei ere zubia bidali behar zaie, beraien sustraiak ezagutzeko gogoia baitute.

Turismo zientifikoa ere badago, euskararekin lotuta. Ikuspegi hori gauzatu da eta proiektuak horiek dira. Proiektu horien barruan terapia hau dago, beste bezero mota hori lantzeko, bertakoa zein kanpoko.

Orain arte, turismo arruntari begira lan egin da.

Bezero mota desberdinak erakartzeko prestatu behar du nekazalturismoak.

Landaturismoa

Lehenengo nekazalturismoko etxeak hasi ziren eta gero etorri ziren landaetxeak.

Nekazalturismoa intentzio batekin sortu zen: ekonomia osagarria sortzea bertako baserritarra bertan gelditzeko eta bere ekonomia hobetzeko. Gero beste modalitate bat sortu zen: landaetxea. Nekazalturismoak lan agrarioa dauka; baratza, animaliak... Landaetxeak izan dezake, ala ez. Amankomunean daukatena da, nekazal eremuan bizi direla da. Sare horren osagarri izan daitezke.

Zer ekarri dio baserriari?

Letxugak, tomateak... baino gehiago sortzen ditu baserriak. Baloreak. Paisaia, biodibertsitatea, edertasuna, sentsazio bat, esperientziak izateko aukera... eta gainera, plus bat dute ongizatean eta heziketan. Gizartearekin batera uztartu egin behar dugu. Gizartearen lana eta lideratzea dagokien lana da uztartze lan hori. Guk orain, garbi ikusten dugu, sareko lan bat egin behar dela, beste estilo berri bat: ez bakarrik innobatu teknologian, innobatu behar da egiteko moduetan.

Baina hori baino gehiago da. Heziketa mundura ere zabaltu beharko da. Heziketa integrala nola ulertu naturarik gabe? Eta zer nekazalturismoa baino egokiagoa?

Pertsonak bezala, elkarteak ere bere heldutasunera iristen dira. Nekaturrek 20 urte egin ditu. Historia bat dago, esperientzia bat, eta baita ere, nolabaiteko aurreikuspen bat.

Behin esan genuen: dagoeneko helduak gara. Beti dirulaguntzei begira. Ez! Helburua, dena autofiantziaztea da. Horretarako, erantzun aurreratuak ematen hasi behar dugu. Euskaldunok badakizu, horretarako egoskorak garela.

Prestatuta al daude nekazalturismoak eta landetxeak, horrelako espezializazioetan parte hartzen hasteko?

Barruko lan bat ari gara egiten. Espezializazio mota ezberdinak daude. Adibidez, Donejakue bidean daudenak horretan espezializatu daitezke. Orduan, landetxea harrera egiteko moldatuko dute, jakinda zein behar dituzten. Botikina egokituta adibidez.

Beste bat, ornitologikoa izango da. Jende asko etortzen da hegaztiak ikustera. Ez da etxea bakarrik. Liburutegia, tresnak, ibilbideak... beharko ditu. Horrela espezializazioak bilatuz.



- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- Agentzia

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net

nafarroa etorbidea 1, solairuartea - 20200 beasain

Goierri, 13 ostatu

1990. urtean ireki zen Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo nekazalturismoa, Bizkaiko Gauegiz-Arteagan: Txopabenta. Urtebete beranduagoa, Nekatur, Nekazalturismo-Landaetxe Elkarte sortu zen. Gaur egun, 398 ostatu daude: 195 nekazalturismo eta 203 landaetxe. Guztira, 3.070 lagunentzako lekua eskaintzen dute.

Goierri dagokionean, 11 nekazalturismo eta 2 landaetxe daude: Aldarreta (Ataun), Arrieta-Haundi (Zegama), Bartzelona (Legorreta), Borda (Olaberria), Irizar Azpikoa (Zaldibia), Lazkao-etxe (Zaldibia), Lizargarate (Lazkao), Oiharte (Zerain), Ondarre (Segura), Pagorriaga (Beasain), Tellerine (Zerain), Liernigarakoa (Mutiloa-Lierna) eta Orue (Mutiloa).



*Legorretako
Bartzelonako gela bat.*

Berez, nekazalturismoa edo landetxea, dibertsifikazio bat izan zen, ekintza osagarri bat, jendea nekazal eremuan mantentzeko. Orain gertatzen da, dibertsifikazio hori gehiago dibertsifikatzen dela.

300 etxe inguru daude. Ez da asko, baina nahikoa. Azken urteotan asko sortu dira. Izugarritzko negozioa izango dela pentsatuz, bere benetako funtzioa ahaztu egin da. Hau da, osagarri izatea eta ez negozioa. Lekuaren arabera, lan asko egin ari dira batzuk. Demostratu da ekintza horrek, posible egin duela, orain dauden zenbait baserri mantentzea. Bestela, itxita egongo lirake. Produktzioan apustua egin zutenak, intensifikazioan eta inbertsioan, hondoa jo dute. Baserrialdeko errealtatea, produktioarena, gaur egun hondamendia da. Ez da bideragarria. Gipuzkoan %4 izango dira. Baserria beti baztertuta egonda, bestela ez zen hondoratuta egongo.

300 ostatu daudela aipatu dituzu. Ezaugarri ezberdinak dira guztiak. Tokiaren eta ezaugarrien arabera, eskaintza zabala dago.

Oso desberdinak gara, baina lurralde ez da handia. Badakigu, ordubetan edozein hiriburutan egon gaitezkeela. Pagorriaga izango da, naturan sartuago eta aparteago dagoen nekazalturismoa. Horrela izanik, erraza daukate datozenek Euskadi ezagutzeko. 20 minutuan autobidean daude. Eta gero, lasaitasunera itzuli.

Turistak nekazalturismoa deskubritzen duenean, bere oporetako planning-a askotan aldatu egiten du eta egunak pasatzen ditu sentipen hauek bizitzen. Gida egiteko eskatzen digute, bertako sekretuak ezagutzeko. Errekak, paisaia... ikusi eta bizitzeko. Hori da landetxeen xarma. Hori bai, denetik dago: hiriburuetatik gertu, industriaguneetatik gertu... baina baita nekazal eremu zoragarrietan ere.

Aukera hori izatea aberastasuna ere bada, ezta?

Zirkuituak ere egin daitezke. Hainbeste egun hemen, beste hainbat egun han... Gizartea ere kontura behar da, oporrak horrela aukeratuz, bere etxea lantzen ari dela. Zeren, ingurunea

eta natura, gutxi batzuen esku dago; baserriarren esku. Euskadiko lurraldearen % 80a baino gehiago, gutxi batzuen esku dago bere gobernua eta bere mantenua. Eta hori ez da baloratzen, eta ez da ordaintzen. Modu horretan, beraiek gozatzuz, nolabaiteko ordainketa bat egiten dute eta aukera ematen dute aurrera ere mantentzen eta zaintzen jarraitzeko. Ideia horiek dira zabaldu behar direnak. Nolabait, gizartearen heziketa lan bat egiteko dago. Baina guk gure mugak ditugu, eta horiek politikarien zereginak dira. Gure kezka da, gaur egun politikoak izan ordez, gestoreak ditugula. Esaten dietena gestionatzen dute. Hori da gure hutsunea.

Datuak erakusten dutenez, bertako jendea baino kanpotik datozenak gehiago dira. Hala ere, azkenaldian, krisiaren eraginez aldatzen ari omen da joera.

Geroz eta gehiago bertakoa da. Gainera beraien adierazpenetan diote, ez zutela benetan Euskadi edo Euskal Herria ezagutzen. Harrituta gelditzen dira. Urrutira joan gauza pobreagoak ikustera! esaten dute. Hemen, benetan, benetako altxorra daukagu, natura eta kultura aldetik.

Krisi ekonomiko bolada hau, beraz ondo etorriko zaigu bertakoa estimatzen hasteko.

Bai. Krisi egoera guztiak, aukera berrietan bihurtzen dira. Gure jarrera momentuz da, ea zertan hobetzen garen eta zer ikasten dugun. Bestela, betiko eskemak errepikatzen jarraituko genuke. Krisiak bere alde ona dauka.

Seguruenik, pasatu beharko ditugu, momentu batzuk, pobreak, baina berbideratzeko garaia da. Dena den, ikusteko dago. Azken urteotan, nekazalturismoaren edo landaetxearen aukera mantendu egin da eta bisitari gehiago etorri izan dira, nahiz eta portzentajeetan islada berdina ez izan. Izan ere, urte gutxitan, nekazalturismo-landaetxe gehiago irekitzera pasatu gara eta banatu egin behar da. Baina Elkarte bezala, gure bete-beharra, jendea erakartzea da. Horretarako, guk geuk, zerbait aldatu egin behar dugu. Horregatik, prest gaude egoera berrietara egokitzeko, gu geu formatuz, aldatuz, innotatuz...

Animaliez eta naturaz lagunduriko terapia

Psikologia eta etiologia ikasketak ditu Agustin Linazarosok eta Murumendi magaleko txoko honetan bi lanak uztartzen ditu: "etiologia da, animalien portaera; eta psikologia berriz, pertsonen portaera. Animaliak eta pertsonak, uztartu ditugu Pagorriagan elkarr lagunduz jarrita. Animalia, ispilu bat da. Beraiekin hartu-emanetan sartzeko, maila batean jarri behar zara. Beraiek ez zaituzte epaitzen baina, nolakoa zarenaren arabera erreakzionatzen dute. Beraiekin hartu-eman arrakastatsua izateko sintonia batean egoten da. Orduan, animalia hezitzaile bihurtzen da. Horretarako, auto-pertzibitu egin behar zara; normalean, egiten ez duguna. Animaliekin lortzeko behar diren abilitate horiek dira, pertsonen artean behar ditugunak. Animaliek laguntzen digute, oreka emozional hori lortzen. Lurra eta baratzak, pentsamendua eta ekingiza. Natura gu geu; gure natura aurkitu, gure mugak eta beldurrak gainditu...".

Oreinak, zaldiak, astoa, ardiak, ahuntza txikiak, katuak, txakurra eta naturako elementu guztiak. basoa, erreka, barrankoak, kobazuloak.... Elementu horiek guztiak hartu, eta "normalean blokeatuta dauden sentimenduak eta emozioak astintzea da helburua". Diputazioaren esku dauden gizarte babesik



Murumendiren magia

"Murumendi mendi magikoa da. Mitologia, akelarre lekuak, asentamentuak, hilobiak... leku hau bere garaian oso bizia izan zen. Mitoz beteta dago. Gaur egun ere, zientzia munduko jende asko erakartzen du. Zerebroa eta konszientzia ikertzen duten munduko talderik garrantzitsuena hemen izan da, Marseillako taldea. 15 egunean hemen izan ziren", dio Agustin Linazarosok.

gabeko gazteak hartu dituzte praktika honetarako. Bertakoak zein arabiarrak.

Hiru hilabeteko esku-hartzearen ondoren, "aldaketa handiak izan dira neska-mutilengan. Orain hau, azaldu behar da gizarte zientifikoan eta sozialean, gero emaitza zientifikoak egongo dira.

Emailtza errealak, handiak dira. Hemendik pasatu diren neska-mutilak, oso puntu ezberdinean daude. Indartuta. Hobeto ezagutzen dira, beste ziurtasun bat daukate, gizarte trebetasunak ikasi dituzte, beraiekiko eta besteekiko. Azkeneko egunak, oso hunkigarriak izan

ziren. Beraien bizitzan ez dutela ahaztuko esan zuten".

Pertsonen ongizateaz gain, animalien ongizatea ere zaindu eta neurtu dute. "Animalien eboluzioa ere neurtu dugu. Horregatik, proiektua, psikologo batek eta etologa batek zuzendu dugu".



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

“Barruan ere badaukagu lana”

Nekaturreko lehendakaria zara. Noiztik?

Baserri batean denboraren zentzua galdu egiten. Baina hiru bat urte izango dira.

Eta zenbat urte dira nekazalturismoa ireki zenuela?

Zortzi-bederatzi urte izango dira.

Zer aldatu da urte hauetan guztietan?

Heldutasun batera iritsi gara. Heldutasun horren ondorioz, geuk erabakitzen ditugu helburuak, nola lortu eta abar.

Orain helburuak zeuok erabakitzen dituzuela esan duzu. Orain arte, menpekotasun handia izan al duzue erakundeekin?

Orain arte gure konplizeak, ekonomikoki, Diputazioak izan dira, Nekazaritza arlotik. Jaurlaritza ere bai, Nekazaritza arlotik. Orain dagoen egoera ekonomiko eta politikoa dela-eta, administrazioa erdibituta baitaude, sintonia hori, nahita, apurtzen joan da. Horren gatazka barruan denak gara tresna.

Baserritarren kontura zenbait diru iturri lortu dituzte Europatik, beraien ongizatea, egiturak, taldeak... mantentzeko. Baina gu aktibitate bezala eta biztanle bezala, beherako joan gara. Hor ez dago sentimendurik. Horrek esan nahi du, intentsiorik ez dela egon. Momentu honetan, beraien arteko espekulazioetan, Diputazioaren konpetentzia batzuk Jaurlaritzara eraman dituzte; batez ere, nekazalturismoen gaia. Egoera honetan, Diputazioen barruan Saitetan egiteko banaketa ekonomikoa, Nekazaritzari dagokiona, hustu egin dute. Errekurtsorik ez, orduan.

Horrek esan nahi du, ahozko diskurtsuetan zein garrantzia dugun esaten dela, eremu estrategikoa dela... baina gero ez dator bat portaerarekin. Horretarako dagoen errekurtsio ekonomikoa murrizten bada, inkoherentzia bat da. Eta inkoherentzia horren barruan, Diputazioekin oso kaltetuta aurkitu gara. Ikusten da beste interes batzuk dituztela. Adibidez: Arabako Diputazioak ez du hitzarmenik sinatu Nekaturrekin; beraz, ez du dirulaguntzarik eman. Bizkaikoak ere % 80a baino gehiago jaitsi du. Gipuzkoan mantendu egin da, eta Jaurlaritzak ere bai. Helduak garenez, badakigu zer nahi dugun eta nola lortu, eta turismoarekin lotuta dagoen Jaurlaritzako Sailarekin ari gara, haria indartzen. Bat gatozen helburuekin konplize egokiak izaten. Hala ere, prest gaude gure helburuak betetzeko, nahiz eta Administrazioak ez ikusi. Orain arte, beti dependentsia horretan, ibili gara eta gure kalterako izan da.

Adibidez, nazioarteko kooperazioa eta terapia lagundua proiektuak, Administrazioaren laguntzarik gabe hasi gara egiten. Gero etorriko dira.

Aurre hartu diezue beraz.

Guk garbi daukagu, beraz, aurrera egin behar dugu.

Etorkizunari begira, beste urrats bat egiteko prest dago beraz Nekatur.

Delegazionismoa izaten da betiko joera, eta Elkarateak, bulegoak, Administrazioak babes hori eman behar du. Baina hori beti, eskaleak izateko bidea da. Joera horiek berbideratzeko, lana egiten ari gara. Gure hausnarketak eta plan estrategikoen egin ditugu. Bestetik ikusten dugu, 300 garelako eta oso desberdinak garelako. Bai tokiaren arabera, etxearen arabera... beraz, beste proiektu bat da, autodiagnostikoa egitea, etxe guztientzat. Ikusteko etxe bakoitzean zer dagoen, nola dagoen, zein gai



potentzial dituen lantzeko, zein kezka eta zein aukera ematen dituen proiektu berriak sortzeko dibertsifikazio horretan. Gure lana ez dago kanpora begira bakarrik, barruan ere badaukagu lana. Helburua, izpiritu zahar hura berreskuratzea da; Elkarteko kidearen izpiritua. Protagonistak gara, denon artean egin behar ditugu gauzak, koherentziaz.

Oztopoak oztopo, aurrera egin du Nekaturrek.

Mehatuak egon dira: nekazal eremua ikusi izan da, negozio nitxo berri bezala. Eraikuntzan inbertitu dutenek... aurreikusten zuten eraikuntza beherako zihola eta orduan saioak egin dira, beraien politikoen bitartez, legeak eta dekretuak aldatuz, nekazal eremuko ateak zabaltzea, beraien inbertsioak egiteko. Gatazka luze eta latza izan dugu. Nolabait, sartu nahi ziguten, gurea ez den turismo bat. Alegia, nekazalturismoa ez dena. Turismo industrial da hori. Eskarmentua geneukanez, ikusi baitugu, intentsifikatuz baserria ez dela bideragarria bihurtu, gainera, ingurumen arazoa bihurtu da, eta hondamendia izan da. Dekretua berregiteko dago eta guk parte hartzen dugu, protagonista gara gu. Momentu honetan, gure hitza eta hausnarrekta kontuan hartzen dute.

Horrek zer esan nahi du, Nekatur, indartsua dela?

Garrantzitsuak garelako. Beste gizarte kolektiboekin konparatuta, gutxi gara; nekazal eremuan bizi garenak gutxi gara baina oso garrantzitsuak gara. Benetako protagonistak gu gara. Baserritarrik gabe ez litzateke egongo orain ikusten dugun paisaia.

Borroka asko egin behar izan dituzue. Bat aipatu duzu. Beste bat, etxeak lauburuetan sailkatzea izan zen, hoteletan izarrak dauden bezala. Horren aurka azaldu eta borroka hori ere irabazi duzue.

Turismoko eredia aplikatzea nahi zuten. Baina gehiengo batek ikusi genuen, elkarkideen izpiritua kolokan jarriko zela. Lehiakide bezala bihurtzen ginela. Lauburu gehiago lortzeko, inbertsioa eskatzen zuen eta beste batzuen interesak egiten ari ginen. Betiko tranpa.

Nekazal eremuan bizi garenak gutxi gara baina oso garrantzitsuak gara. Baserritarrik gabe ez litzateke egongo orain ikusten dugun paisaia.




Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 28. zenbakia 2010eko uztaila



Barandiaran museoa

Lehengo euskaldunak, haien ohiturak
eta mitologia ezagutzeko lekua



Joxemiel Barandiaran nor izan zen eta zer lan egin zituen jakin nahi duenarentzat zabalik da

Barandiaran museoa

Jentilak, Basajaun, Lamiak, Tartalo (edo Torto), San Martin Txiki, Kixmi, Mari... Euskal mitologiako pertsonaiak gaur egun ezagunak baditugu Joxemiel Barandiaran bezalakoek egin zituzten ikerketei esker da.

Baina, nor zen Joxemiel Barandiaran? Bera orain dela 19 urte hil zen eta haurrontzat eta gaztetxoontzat agian ez da ezaguna izango, baina, zuen gurasoei edo aiton-amonei galdetuta ziur jakingo dutela nor izan zen Ataungo gizon jakintsua.

Joxemiel Barandiaran 1889.

urteko abenduaren 31n jaio zen Ataungo Perune Zaharra baserrian eta 102 urte bete aurretik hil zen handik gertu dagoen Sara etxean, 1991ko abenduaren 21ean.

Apaiz ikasketak bukatu ondoren ikerketak egiten hasi eta horretan aritu zen bizitza guztian, 100 urterekin oraindik ere lanean jarraitzen baitzuen.

Ikerketak batez ere hiru arlotan egin zituen Joxemiel Barandiaranek: arkeologia, etnografia eta mitologia. Baina, zer hiru arlo hoiek?

Arkeologia, historia aurreko giza-kia nolakoa zen eta nola bizi zen aztertzea da. Horretarako Aralartik hasi eta Euskal Herri osoko hainbat trikuharri eta kobazulotan indusketak eta ikerketak egin zituzten Joxemielek eta bere lankideek. Bertan lehen euskaldunen hezurak, geziak, aiztoak, apaingarriak... aurkitu eta aztertu zituzten.

Etnografia, gure aurrekoak (aiton-amonak, birraiton-birramonak...) nola bizi ziren, zer lan egiten zuten, nolako jaiak egiten zituzten eta abar ikertzea da. Horretarako

baserriz-baserri eta etxez-etxe ibiltzen zen Ataungo jakintsua, bertako aiton-amonei galderak eginez eta beraiekin hitz eginez, Euskal Herriko bizitza eta ohiturak nolakoak ziren jakiteko.

Mitologia, berriz, lehengo euskaldunek zituzten sinesmenak jaso eta aztertzea da. Garai batean gizakiaren jatorria eta naturan gertatzen zena azaltzeko fantasiako istorioak kontatzen zituzten. Istorio eta ipuin hoiek ahoz aho iritsi dira gure garaietara. Euskal Herri guztiko zaharrek hitz eginez, Basajaun, lamiak, jentilak, Mari, Kixmi eta beste hainbat gizakien istorioak bildu zituen Joxemiel Barandiaranek.

Museoa Ataunen

Aurretik aipatu ditugun gaiak interesgarriak iruditu al zaizkizue? Horietaz gehiago jakin nahi al duzue? Horretarako Ataunen ireki berri duten museora gerturatu besterik ez duzue. San Gregorioko errota 300m²-tan panel eta ikus-entzunezkoen bidez asko ikasi dezakegu.

Alde batetik goiko solairuan Joxemiel Barandiaranen bizia nolakoa izan zen azaltzen da. Bertan bere haurtzaroa, gaztaroa eta eskola garaia nolakoa izan zen azaltzen da, besteak beste, Joxemiel beraren ahotsean. Bere eguneroko digitalizatua, idatzi zituen liburuak eta jaso zituen sariak ere bertan daude ikusgai.

Beheko solairuan Barandiaranek egindako ikerketa eta lanak hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen da. Berak aurkitutako aztarnategiak, kobak edo trikuharriak non dauden, aztarnategi bat nolakoa zen, neurri errealean, eta aurkitu zituen pieza interesgarrien erreplikak ikusi daitezke.



Joxemiel beraren ahotsean garai bateko kontakizun, ipuin eta kondairak ere entzun daitezke, baita berak grabatutako bideo bat ikusi ere.

Bukatzeko Ataunen mitologiarekin lotutako lekuak bisitatuz egin daitezkeen ibilbideen berri ematen da.



Jentilak, Basajaun, Lamiak, Tartalo,

San Martin Txiki, Kixmi, Mari...

gaur egun ezagunak baditugu

Joxemiel Barandiaran bezalakoek egin

zituzten ikerketei esker da.



Elkartu puntuak

Marrazki honetan 1etik 44ra dauden puntuak elkartu eta animalia bat marraztuko duzu.



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Txarliren kontuak

Autorea: Rotraut Susanne Berner

Ilustratzailea: Rotraut Susanne Berne

Itzultzailea: Irati Elorrieta

Argitaletxea: Alberdania

Orrialde kopurua: 64

Lau urteko haur baten kontuak dira *Txarliren kontuak*. Haurren egunerokoan gertatzen diren une xarmangarriak kontatzen zaizkigu, hogeita bederatzi, orrialde pare bateko atal laburtxoetan, azal gogorreko liburu ilustratu honetan. Une txikiak dira, etxeako gehienak, adin horietan ohikoak diren ateraldi buruargien distira dutenak, Txarlik gurasoenekin, senideekin eta lagunekin bizitzen dituenak, eta guk ere halaxe bizi ditzakegunak.

Ikusi-makusi baserrian

Autorea: Martine Perrin

Itzultzailea: J.M. Olaizola "Txiliku"

Argitaletxea: Tartalo

Orrialde kopurua: 36

Iritsi zaigu bada, joan den hamarkadako frantziar haur txikiaren albumak estilo berezi bezain markatuarekin harritu zituen Martine Perrinen (Paris 1965-) lan bat euskarara. Euskaldunoi dagokigunez, baserrian ikusi-makusitan jolastea proposatzen digun album trokelatua egokitu zaigu.

Testua zortzi galdera eta beren erantzunak osatzen dute eta errimarekin datoz: erantzunaren azken silaba galderaren azken silabarekin lotzen da.


Letra zopa

Ondoko letra zopan aurki itzazu
6 pertsonaia mitologiko.



J	U	O	I	H	A	T	L	U	A
E	E	T	M	U	R	U	A	Z	M
N	D	K	I	Z	R	R	E	I	A
T	S	P	I	O	E	O	A	P	N
I	A	L	P	X	N	U	A	G	U
L	J	T	O	E	M	H	L	S	A
A	U	L	G	A	K	I	B	T	J
A	R	Z	R	S	R	A	I	T	A
T	K	I	L	K	X	E	V	O	S
L	T	Z	A	M	R	E	A	H	A
S	T	A	R	T	A	L	O	D	B
J	I	O	P	M	L	K	G	E	R
G	O	I	A	I	M	A	L	E	A

Tartalo
Lamia
Kixmi
Mari
Jentila
Basajauna



Osatu irudia



Mutiloa

San Pedro jaiak

Uztailak 1, osteguna:

18:30etan: Mutiloako II. pala lehiaketako finaleko eta finalau-rreko pilota partidak eta sari banaketa.

19:30etan: XIII. Patata-tortilla lehiaketa.

Ondoren: Prestatutako tortillak gerturatzeko direnen artean banatuko dira. Patata-tortillari laguntzeko ardoa ere banatu-ko da.

20:00etan: Toka lehiaketa herritarrentzat.

Iluntzeko giroa Gabiriko trikitilariak alaituko dute.

Uztailak 2, ostirala:

20:00etan: XVIII. Sagardo dastaketa. 26 sagardotegi desber-dinetako sagardoa, taloa eta pintxoak.

Ondoren: Nahi dutenentzat oilasko errea jateko aukera izan-go da.

23:30etan: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Goizaldera: Txokolate jana.

Uztailak 3, larunbata:

Eguerdian: Bazkaldu aurreko poteoa.

14:00etan: Gazte bazkaria.

17:00etan: Umeentzako puzgarriak, buruhandiak eta merienda.

17:00etan: Mus eta puntu txapelketak.

Afariaren aurretik: Ardo banaketa.

20:00etan: Meza.

21:00etan: Herri afaria.

Gauean: Mozorro lehiaketa.

23:30etan: Txerri harrapaketa.

23:30etan: Unsain taldearekin dantzaldia.

Goizaldera: Txokolate jana.

Uztailak 4, igandea:

Goiz eresia Segurako txistulariekin.

11:00etan: Bola lehiaketa.

11:30etan: Meza.

Ondoren: Gabiriko Goruntz taldearen dantza saioa.

Bazkal aurretik: Elustondo anai-arreba trikitilariak.

13:00etan: Toka lehiaketa.

18:30etan: Herri kirolak. Aimar Irigoien eta Joxe Ramon Izeta harri-jasotzaileak eta aizkolariak.

Ondoren: Elustondo anai-arreba trikitilariak.

Idiazabal

Xabier Arakama eta Donato Goienetxeren kontzertua

Beste Musikak kontzertuen barruan, uztailaren 2an, iluntze-ko 8etan, plazan, trikitixa eta perkusio uztartuko dituzte Xabier Arakamak eta Donato Goienetxek. Trikitixa (akordeoi diatonikoa) Euskal Herriko musika-tresna tradizionala da, eta oro har, panderoarekin batera jotzen da. Oraingo honetan, ordea, beste tresna hauek izango dira trikitixaren laguntzai-le: bongoak, afrikar danborra, xilomarimba, kriskitinak, tem-ples block kutxa, udua, masailezurra, zilindroa, eta abar.

Lazkao

Udako kultur ekintzak

Uztailak 6, asteartea:

22:00etan: Gorringo antzerki-taldearen 'Xabinaitor' lana, Plazan.

Uztailak 13, asteartea:

22:00etan: Goierriko bertsolari gazteak: Joanes Etxaide, Ainhoa Mujika, Odei Lopez, Endika Igartzabal, Joseba Agirrezabala eta Gema Urteaga. Gai jartzen: Igor Eguren. Plazan.

Uztailak 15, osteguna:

22:00etan: Drindots musika-taldea, Plazan.

Ordizia

Agostinho memoriala

Ordiziako gazte asanbladakoek, uztailaren 3an, 16:30ean Gaztetxetik abiatuta, Agostinho memorialaren 23. ekitaldia egingo dute. 16:00etan izango da izen-ematea gaztetxean.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Ikaskide UDA 2010
irakaskuntza eta pedagogia
www.ikaskide.net

LEHEN HEZKUNTZA, DBH, BATXILERGOA:
Errepasoa, errekupeazioak, datorren kurtsorako prestakuntza


UNIBERTSITATE MAILA (MU): Errekupeazioak, prestakuntza

MEKANOGRAFIA: Ikastaro trinkoa

TAILERRAK: Irakurmena, idazmena, kalkuloa eta matematika

INGELERA: Ikastaro trinkoaK

Informazioa eta izen ematea: Joan Iturralde, 5 solairuartera - BEASAIN
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462



MUJIKALIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Afaun

Organo barrokoaren nazioarteko IV. jaialdia

Azken lau urteko ohiturari jarraituz, uztailarekin batera, Organo barrokoaren nazioarteko jaialdia izango da, San Martingo elizan. Hiru saio izango dira:

Uztailak 3, larunbata:

20:00etan: Thomas Ospital, organojolea.

Uztailak 10, larunbata:

20:00etan: Alqhai Consort taldea: Fahmi eta Rami Alqhai, zango biolajoleak eta Alberto Martinez Moliana, organojolea.

Uztailak 17, larunbata:

20:00etan: Gabriela Eibenová sopranoa eta Adam Viktora organojolea.

Afaun

Aiako jaiak

Uztailak 2, ostirala: Santa Ixabel eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30ean: Hamaiketakoa.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak eta Santi eta Katxo trikitilariak.

14:00etan: Herri bazkaria.

17:00etan: Toka txapelketa.

24:00etan: Belarra taldearen kontzertua.

Uztailak 3, larunbata:

11:30ean: Aiako errotatxoa martxan jarriko dute.

16:00etan: Ume jolasak.

19:00etan: Sagardo eta sardina dastaketa.

21:00etan: Gazte afaria.

24:00etan: Kontzertua: Indarra, Marianitoz blai eta Trikitzio.

Uztailak 4, igandea:

12:00etan: Pilota partiduak.

16:00etan: Otsoak dantza taldearen emanaldia.

17:00etan: Herri kirolak: aizkolariak eta harrijasotzailea.

UZTAILEAN HERRI HAUETAN JARRIKO DUGU ORGANIKOAREN BILKETA BERRIA:
LAZKAO, IDIAZABAL, ITSASONDO, ARAMA eta OLABERRIAN.



HEMEN NAGO!!

Etkez-etxe banatuko dugu bilketarako behar duzun guztia.

UDA ONDOREN: BEASAINEN, ORMAIZTEGIN ETA ZALDIBIN.
*Herri guzti hauetan kanpaina berezia. **ANIMA ZAITEZ!!***

Argibide gehiago: **www.sasieta.net**






Ezkioko Olazabal baserriko sendia 1915. urte inguruan

Zutik ezkerretik eskuinera: Inazio, Joxepa, Blas eta Juan Mendiguren Sarriegi.

Eserita: Joxe Inazio Mendiguren Aranbaru (aita) eta Martina Sarriegi Mendia (ama).

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



RENAULT LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.




Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA D&G VERSACE BURBERRY

reklamazioa



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

bertan duzu



JATETXEAK

ALTAMIRA - Ordizia	685 79 47 55
ARTZAIENEA - Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA - Gabiria	943 73 36 22
BATZOKIA - Beasain	943 08 68 55
BARTZELONA - Legorreta	943 80 62 06
CASTILLO - Olaberria	943 88 19 58
DOLAREA - Beasain	943 88 38 89
GUARDI - Idiazabal	943 80 19 18
GUREGAS - Beasain	943 80 54 80
KIKARA (pintxok) - Beasain	943 88 62 34
KORTA - Gabiria	943 88 71 86
KUKO - Ormaiztegui	943 88 28 93
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
MANDIOA - Zeraín	943 80 17 05
MANDUBIA - Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ - Ordizia	943 88 06 41
MUJKA - Idiazabal	943 18 73 19
MUJKA - Mutioa (Liernia)	943 80 16 99
ORUE - Mutioa	943 80 19 00
OSTATU - Zeraín	943 80 17 99
OSTATU - Zegama	943 80 10 51
OSTATU - Mutioa	943 80 11 66
OTENE - Gaintza	943 88 98 48
OTZARTEKO BENTA - Zegama	943 80 12 93
TOKI ALAI - Arama	943 88 89 53
TXINDOKI - Ordizia	943 88 40 49
URKIOLA - Beasain	943 08 61 31
XERBERA - Beasain	943 88 88 29
ZEZILIOEA - Olaberria	943 88 58 29

JULKI GOZOTEGIA - Beasain
UNANUE GOZOTEGIA - Ordizia

SAGARDOTEGIAK

OIHARTE - Zeraín	680 17 12 91
OTATZA - Zeraín	943 80 17 57
TXIMISTA - Ordizia	943 88 11 28

PENTSIOAK

ITXUNE ** - Ormaiztegui	639 23 88 89
ZEGAMA ** - Zegama	943 80 10 51
ZEZILIOEA ** - Olaberria	943 88 58 29

NEKAZALTURISMOAK

ALDARRETA - Atun	943 18 03 66
ARRIETA - HAUNDI - Zegama	943 80 18 90
BARTZELONA - Legorreta	943 80 62 06
BORDA - Olaberria	943 16 06 81
IRIZAR AZPIKOA - Zaldibia	943 88 77 18
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE - Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE - Zeraín	680 17 12 91
ONDARRE - Segura	943 80 16 64
PAGORRIAGA - Beasain	943 58 20 71
TELLERINE - Zeraín	943 58 20 31

HOTELAK

CASTILLO *** - Olaberria	943 88 19 58
DOLAREA**** - Beasain	943 88 38 89
IGARTZA * - Beasain	943 08 52 40
GUREGAS ** - Beasain	943 80 54 80
ZEPAL * - Idiazabal	943 18 71 98

LANDETXEAK

LIERNIGARAKOA-Mutioa (Liernia)	943 80 16 99
ORUE - Mutioa	943 80 19 00

ATERPETXEAK

SEGURA	943 80 10 10
ZERAIN	943 80 15 05

KOMERTZIOA

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia

ZER. TURISTIKOAK

AIZKORRI BIDEAN-Gida Zerbitzuak	943 80 21 87
ALARPE - Zaldiko ibilbideak	943 88 05 76
ALDABE - Gida Zerbitzuak	943 80 15 05
ERLO - Gida Zerbitzuak	943 58 20 69
ERRO - Gida Zerbitzuak	943 88 22 90



Compromiso
Calidad Turística

Kalitate turistikoarekin konpromisoa



goierri
bertan duzu

GOIERRI PARKE NATURALA ETA KULTURALA

ARALAR PARKE NATURELEKO INTERPRETazio ZENTRUA ATAUN

- GAZTAREN INTERPRETazio ETA DEGUSTAZIO ZENTRUA IDIAZABAL
- ELIKADURA ETA GASTRONOMIAREN INTERPRETazio ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- GOIERRIKO INTERPRETazio ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
- ERTAROKO INTERPRETazio ZENTRUA SEGURA
- AIZKORRI - ARATZ PARKE NATURELEKO INTERPRETazio ZENTRUA ZEGAMA
- PAISAIA KULTURALA ZERAIN
- BURDINAREN MENDIA - AIZPEAKO MEATEGIA ZERAIN



EUSKADI



www.goierriturismo.com

ALTZAGA ARAMA ATAUN BEASAIN GABIRIA GAINZA IDIAZABAL ITSASONDO LAZKAO LEGORRETA MUTILOA OLABERRIA ORDIZIA ORMAIZTEGI SEGURA ZALDIBIA ZEGAMA ZERAIN